

Nelly Arrobo

Nelly Arrobo Fundación Pueblo Indio del Ecuador-eko kide da, hogei urtez herri indigenen eskubide eta duintasunaren alde lan egin duen taldea. Xede horrekin sortu zuen Leonidas Proaño apezpikuak, eliza katolikoaren korrante nagusiekin bat ez zetozen beste hainbat apaizek ere Latinoamerikako hainbat herritan egin duten moduan. Erronka hori Nelly Arrobo hartu zuen bere gain, beste lau kiderekin batera, eta urte hauetan guztietan hamaika proiektu gauzatzeaz gain, Ekuadorren bizi izan diren indigenen mugimendu politikoak lagundu dituzte.

OIER GUILLAN
Argazkiak: Dani Blanco



«Correaren gobernuak ez du onartzen estatu nazio-anitza Ekuadorren»

Zeintzuk dira fundazioaren helburuak?

Batetik, herri indigenena mugimendu indartsua izatea, euren autodeterminazioak Ekuadorreko gizartearen baitan presentzia izan zezan, gizarte hau berez nahiko baztertzaila eta arrazista izan baita herri indigenekin. Bigarrenik, eliza katolikoaren bidetik eliza indigena sortzea, eta hau askoz zailagoa izan da. Proaño apezpikuaren iritziz, indigenen espiritualitateak bat egiten du naturarekin eta komunitatearen zentzuarekin, eta ikuspegi horrek eliza katolikoaren osotasuna aberastu dezake. Gure asmoa fede kristaua adieraztea da, baina gure balore kulturaletatik eta gure erlijio propioetatik. Mugimendu indigenak dituen egitura propioen laguntzailatzat dugu gure burua, baina

ez gara bakarrik. CONAIE bezalako egitura politikoekin kolaboratu izan dugu luzez.

Urteotan mugimendu indigenaren zer lorpen saiatu zarete laguntzen?

Kultur arteko hezkuntza elebidunaren sistema aipatuko nuke lehenik eta behin, kultura eta hizkuntza propioak aintzat hartzen dituen hezkuntza sistema. Baita osasun indigenaren zuzendaritza nazionala ere, haien sendakuntza mota, belarren erabilera eta diagnostikatzeko modu propioak errespetatzen dituen. Herri indigenen garapenerako kontseilua ere garrantzitsua da, egun egitura legala daukana. Azkenik, azpimarratzekoa da justizia indigenaren onartzea; justizia lantzeko modu propioa



debehatuta egon da luzez eta egun malgutasun gehiago dago kasu askotan indigenen justizia erabiltzeko, justizia administratibotik pasa gabe.

Zeintzuk dira fundazioetik bultzatzen dituzuen proiektu zehatzak?

Hezkuntzan eskoletako azpiegiturak hobetzeko laguntzak lortzen saiatzen gara, eta baita irakasleen prestakuntza babesten. Emakume taldeak bultzatzen ditugu, familia eta komunitateentzako laguntza ekonomikoak lortzen saiatzen gara, baina batez ere kontzientziarioi ematen diogu garrantzia. Kontzientzia har dezakezu gai batzuen inguruan eta ezer ez egin; kontzientzia hartzeaz gain azpiegiturak eraldatzeko konpromisoak hartzea interesatzen zaigu. Lehen emakumeei debehatuak zitzaizkien gai politikoak, sozialak eta ekonomikoak landuz pertsona bezala aberastu eta ekin-tza zehatzen bidez adierazi nahi dugu. Estatubatuarrak Ekuadorren duten Mantako militar gunearen edo petrolioaren gaiekin ekintzak burutu izan ditugu emakume taldeetatik. Bestalde, komunitateek euren lurak berreskuratu ditzaten ere egiten dugu lan. Lurak okupatzeagatik zigor latzak ezarri dira eta azkenaldian erostera jo dugu, lur komunalak sortzeko xedez. Dirua iparraldeko estatuetatik lortzen saiatu gara, iparra eta hegoaren arteko harremanean nazioarteko justizia egiteko. Zoritarrez, zaila da, eta azkenaldian lur komunal hauek zaitzeko arriskua ikusi dugu, batzuetan iruzurraren ondorioz, besteetan ziur aski jabetza pribatuak pertsonengan duen pisuaren ondorioz. Azkenik, zaharrek ere egiten dugu lan, pobrezia medio izugarri igo baita haiekiko utzikeria. Urtero bidaia bat egitera eramaten ditugu. Niretzat zirrargarria izan da laurogeita bost urteko agure nekazariarentzat 'itsasoa' hitzak zentzurik ez zuela

deskubritzea, eta itsasoa ikustera eramatea, ez zutelako inoiz ikusi.

Zein egoeratan daude egun Ekuadorreko indigenen hizkuntzak, eta zer garrantzia dute haien kultura berreskuratzeko borrokan?

Nik kitxuaren kasua ezagutzen dut bereziki. Kitxua hizkuntza ofiziala da Ekuadorren gaztelaniarekin batera, baina horrek ez du esan nahi normalizatu dagoenik, ezta desagertzeko arriskua ez daukanik ere. Indigenak luzez izan dira beren kulturagatik estigmatizatuak, eta kitxua erabiltzeko lotsa handia dago oraindik. Familia batzuek ez dute nahi beren seme-alabek eskoletan kitxua ikas dezaten, gaztele-

“Indigenak luzaz izan dira beren kulturagatik estigmatizatuak, eta kitxua erabiltzeko lotsa handia dago oraindik. Familia batzuek ez dute nahi beren seme-alabek eskoletan kitxua ikas dezaten”

ra bai ordea, eta ahal izanez gero baita ingelesa ere. Teknologia berriekin ez da egon hitz berriak sortzeko modua, gaztele-ratik hartzen direnez kitxua ez da sustatzen. Iaz hasi ziren lehenbiziko aldiz eskoletan kitxuaz idatzitako testuak erabiltzen. Kitxua erraza da ikasteko, baina era berean zaila, ez daukalako zerikusirik sustrai latinoak dituzten hizkuntzekin. Kitxuaz gain badira bederatzi bat hizkuntza Ekuadorren, hitz egiten diren lekuetan ofizializat hartuak, baina hori teoria baino ez da, borondate politikoa falta baita. Duela lau hilabetetik argitaratzen da egunkari bat kitxuaz eta gaztelez, badira liburu batzuk argitaratzeko proiektuak, baina saio isolatuak baino ez dira. Kitxua irratia eta telebistetan entzun ahal izango balitz indigenen hizkuntzarekiko harrotasuna areagotuko litzateke, egun ez baitie ezertarako balio hirietan edo bulego publikoetan. Hizkuntzak, beste leku askotan gertatzen den bezala, kitxuen mundu-ikuskerara islatzen du.

Zer garrantzia izan lezake herri indigenen mundu ikuskerak globalizazioaren zentzurik txarrena nagusitu den garaiotan?



Indigenen mundu ikuskeraren alderdi askok neure baitan ari-keta mentala egitera bultzatu naute. Adibide bat: indigenentzat iragana aurrean dago. Arbasoak dira gure aurretik doazenak, bidea erakusten. Hori guretzako etorkizuna litzateke, baina beraientzat ez, iragana gure aurretik doa, eta norabide horretan goaz gu ere. Mendebaldeko kulturaren zera irakatsi zaigu, unibertsoaren sorreraren jaunak garela, dominatzaileak, eta harrapariak bilakatu gara. Indigenek ordea harreman sinbiotikoa dute naturarekin, bere parte sentitzen dira, beraiek badakite naturari kalte egiten badiote beren buruari egiten diotela kalte, eta hori guztia berreskuratu behar genuke planetak bizirik irautea nahi badugu.

Fundazioan lanean eman dituzuen urteotan tankera guztietako gobernu aldaketekin bizi behar izan duzue. Nolakoa da egungo egoera Rafael Correarekin, herri indigenen mugimenduari dagokionez?

Nire ustez herri indigenen aldarrikapenak atzeratu egingo dira. Correaren egungo gobernuko zenbait ordezkari eta kolaboratzaileekin hitz egin ahal izan dugu, eta ez dute onartzen Ekuadorren baitan dauden nazionalitateak aintzat hartuko

ATALAIA JATETXEA



Aritz Ondo, 69 • 20305 Irun
Tel: 943 635518 • Faxe: 943 638718
e-posta: info@hotelatalaia.com
web orria: www.hotelatalaia.com



alternatiba bolivariarra] babestu du ALCaren [batasun komertziala bultzatzeko AEBen proposamena] aurrean. Azken aukera horren inposaketarekin zabortegi teknologiko bilakatu nahi gintuzten, eta orain garena baino herri are menpekoago, gure aberastasunak erabili beharrean Estatu Batuetako elikagaiak onartzeko. Berrehun arto mota baino gehiago ditugu, bakoitzarekin janari mota ezberdinak egiten dira, eta arto mota

bakarra inposatu nahi zitzaigun. Patatarekin berdin... Aldaketa hauek guztiek ekarri dute Ekuadorren eta Latinoamerika osoan nekazaritza erreforma berria eskatzen hastea, lurraren jabegoaren eta herriaren elikaduraren inguruko eztabaidari berriz ere bidea zabalduz.

Azken urteotan gurean inoiz baino gehiago entzuten ari dira 'kultur aniztasuna' eta 'elkartasuna' bezalako hitzak, etorkinen presentziaren igoeraren eraginez agian, baina erakundeen aldetik datorrenean sarritan erakusleihorako hitzak baino ez dira, sakontasunik gabekoak. Zuek han bizi duzuen esperientziatik, nola gauza genezake bertatik benetako elkartasuna?

Lehenik eta behin, elkartasuna egiteko modu bat gure prozesuen inguruko informazio zuzena bilatzea eta jasotzea izan daiteke, ohiko komunikabideek ez ditzaten saldu gure herrietako albiste osatugabeak. Bigarrenik, ez dira identifikatu behar transnazionalen interesak herriko jendearekin, transnazionalen gure herrientzat onuragarriagoak diren kontratuak sinatzerakoan zuen herrietan ere babesa izan dezagun. Oraino, kontratu hauen %80a transnazionalentzat izan da, eta %20a baliabideen jabe diren herrientzat. Orain bostehun urte baino gehiago sortu zen lotura honen bidez, metropoliek beren koloniatzat izan dituzten herriak esplotatu dituzte, eta jokaera horrek bere horretan jarraitzen du, beste izen batzuekin, forma sotilagoekin, baina lehen bezain kaltegarri.

Bestalde, onuragarria da gertatzen dena ikustera joatea, baina entzuteko jarrerarekin. Bada jende asko irakastera doala dioena, eta gehienetan kontrakoa izan ohi da, irakatsi baino gehiago da ikasitakoa. Hango errealitatea ezagutzera doanak apaltasunez jokatu behar du. Azkenik, baliabide ekonomikoak garrantzitsuak dira, baina partekatzeko ekonomikoa modu zuzenean egin beharko litzateke. Iparralde hegoaldearen kontura garatu da eta itzuli egin behar zaio zerbait. Ez dut esan nahi iparraldeko jende guztia esplotatzailea denik, baina garrantzitsua iruditzen zait herriak herria doan elkartasuna; normalean elkartasuna ez dugu topatzen dirua daukatenen artean, herri xehearen baitan baizik. Iparraldeko herritarrak dira askotan beraiek ere ez dutena ematen saiatzen direnak, eta ez gobernu boteretsuak. ■

Nelly Arrobo
Euskal Herrira
egindako bisitan
Errenteriako
(Gipuzkoa)
Mikelazulo
kulturunean
eskainitako
hitzaldia.

dituen estatu nazio-anitza. Hala ere, ez dut uste herri indigenen eskubide kolektiboen arloan urteotan lortutakoa galduko denik. Edonola ere, itxaropen handia dugu Correarekin, eta horrela ulertu dute masiboki bere ideien alde bozkatu duten indigenek ere. Badirudi Correak Ekuadorren soberania eta duintasuna berreskuratu dituela, orain arteko gobernuak iparramerikar inperialismoaren menpekoak izan baitira. Eta neurri batean baita iparraldeko estatu guztien menpeko ere, transnazionalen politikek eraginda jokatu izan dutelako beti. Iparraldeko gobernuak euren burua transnazionalen interesekin identifikatzeko joera dute, eta herriek eta haien gobernuak jotako erasotzat hartzen dituzte gure herriek transnazionalen egindako aldarrikapenak. Correak, baina, aurre egiten die AEBen interesei, Mantako basearen kasuan adibidez. Bertan AEBetako bostehun bat soldadu mertzenario daude, Irakera bidali izan dituztenen antzekoak. Seguritasun pribatuaren organismoek gerra egiteko kontratatutako mertzenarioak dira, gure ustez Ozeano Barea kontrolatzeko ekarriak. 2009. urtean base horrekin dagoen hitzarmena amaitzen da eta ez da berrituko. Horrek itxaropena ematen digu, inperioari aurre egiteko gai dela erakusten duelako.

Nazioarteko Moneta Funtsa eta Mundu Bankua ere Ekuadorretik bota ditu, eta kanpo zorra ordaintzeari uko egin dio. Beste adibide bat: orain gutxi interes handiz irakurri dut nola Ekuadorreko Defentsa ministroak publikoki onartu duen Ekuadorrek iparraldean ez duela muga Kolonbiarekin, FARCeekin baizik. Orain arte tabua zen hori, eta diplomaziaren aitzakian egon izan den hipokrisiaren moztasunak erazteko prest azaldu da gobernu berria. Haize berriak suma daitezke, eta ez soilik Ekuadorren, baita kontinente osoan ere.

Zein neurritan senti liteke Correa babestua Venezuelako edo Bolivia bezalako beste herrialdeetan bizi diren egoerengatik?

Nire ustez oro har eman diren aldaketak lagunariak dira planteamendu ausartak egiteko. Correak Latinoamerikako herrien batasuna bultzatu du, hegoaldeko bankuaren sorreraren alde azaldu da eta ALBA [Latinoamerika batzeko

“Rafael Correak
erakutsi du AEBetako
inperioari aurre
egiteko gai dela.
Haize berriak suma
daitezke, eta ez soilik
Ekuadorren, baita
kontinente osoan ere”